




ANDOAINO UDALA



Maiatzaren 6an hasiko da Udal jabetzako etxebizitzak alokairuan eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea

2015eko irailaren 24an Stop Etxekaleratzeak plataformaren mozioa onartu zen Andoaino Udalean, eta horrekin batera, hainbat konpromezu hartu genituen; horien artean, etxebizitzaren gaia lantzeko Lan Mahaia sortzea. Mahai honetan ordezkari politiko eta elkarte sozialak egon dira ordezkaturak (zehazki, udal gobernuak, alderdi politikoak, Fiare Banca Etica, Stop Etxekaleratzeak, Cáritas eta gizarte zerbitzuetako teknikariak), eta epe luzera zein ertainera etxebizitza bat eskuratu ahal izateko programak sustatzea izan du helburu nagusia. Hain juxtu, mahai hau arduratu da 2017ko irailean udalbatzan aho batez onartu zen Udal jabetzako etxebizitzak gizarte errentapetze araubidean esleitzeko udal ordenantza arautzailea osatzeaz.

Etxebizitza duina izateko eskubide unibertsalari erantzuteko asmoz hasi genuen prozesu hau. Beharrezkoa da instituzioetatik herritarrentzat hain oinarrizkoa den eta behar larria den arazo honi alternatibak ematea. Eta hain zuzen, hari horri tiraka jardun gara lanean azken hilabeteetan: Udalaren jabetzakoak ziren etxeak konpondu (230.000 euro gastatu ditugu horretan), bertan bizitzeko baldintza egokietan jarri, eta ordenantzan ezartzen diren baldintzen bitartez, horiek alokagai jarri.

Oraingoz, sei etxebizitza jarriko dira alokagai, nahiz eta etorkizunean gehiago jartzea aurreikusten den. Horietako hiru etxebizitza premia berezia duten pertsonentzat izango dira (hala nola, desgaitasuna duten pertsonak, gurasobakarrak, alargunak, genero indarkeriaren biktimak, legez dibortziatuak edo banandutakoak euren kargu pertsonak dituztenak, azken bi urteetan etxebizitza galdu duten pertsonak gainera etorritako ordaindu ezinako arrazoiengatik), eta beste hiru, multzo orokorrerako. Bi kasuetan, hainbat baldintza bete beharko dira etxebizitza horietako bat eskuratzeko, besteen artean, eskatzaileak egoitza Andoainean izatea azken 3 urteetan edo azken 15 urteetan zehar 8 urtez, diru-sarrerak urtean 3.000 euro eta 25.000 euro bitartekoak izatea, Etxebiden izena emanda egotea edota Udalarekin inolako zorrik ez izatea. Hauetaz gain, premia berezia duten pertsonak euren egoera egiaztatzen duten beste hainbat dokumentu aurkeztu beharko dituzte.

Etxebizitzen hileroko errenta bizikidetzaren unitatearen errenta maila eta etxebizitzaren azaleraren arabera kalkulatu da. Kontratuaren iraupena, berriz, 3 urtekoa izango da, eta urtebeteko aldietan luzatu ahal izango da gehienez 5 urte bete arte.

Maiatzaren 6tik aurrera hasi ahalko da eskaerak aurkezten, Ataria - Herritarren Arreta Zerbitzuan (gogoratu Ambrosia Olabide eraikinean dagoela momentu honetan), 8:00etatik 14:30etara, eta maiatzaren 27a izango da azken eguna. Nolanahi ere, astelehenetik aurrera eskuragarri egongo dira alokairu hauen xehetasunak ematen dituzten informazio orriak, Ambrosia Olabide eraikinean bertan edota www.andoain.eus webgunean.

Andoainean, 2019ko apirilaren 12an

